

XagunArtea

2010eko urtarrilaren 25a

Xagun aldizkaria

49. alea



ELURTEA. Urtarrileko bigarren asteburuan elurte polita izan genuen herrian. Elurrak hainbat oztopo eta zailtasun eragiten baditu ere, argazki ederak ere uzten ditu. Bideak garbitu ahal izateako, Udalak aterpetxe aurrean eskueran utziko du gatza behar duenak handik har dezan.

San Blas eta Santa Ageda bezpera

Otsailaren hasieran bi egun seinalatu ditugu Zerainen. Otsailaren 3an, asteazkena, San Blas eguna ospatuko da urteroko moduan. Iluntzeko 6etan meza eta janarien bedeinkapena izango dira Burgo mendiko San Blas ermitan. Ondoren, urtero bezala, meriendatxoa egingo da Litztormendi elkartean.

Hurrengo egunean, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako kantueskea egingo da. Usadio zaharrari jarraituz, etxe etxe kopla zaharrak kantatuz ibiliko da Uharka koruak gidatutako herritar taldea. Bazkalondan abiatuta, Aizpe auzoan eta herri inguruan ibiliko dira kantari (aurten Barbarira ez dira iritsiko). Biltzen den diru guztia Haitiko jendeari laguntzeko bidaliko da.

Urrezko Aizkoran lehiatuko du Xabik Zerainen bertan

Urtarrilaren 30ean, larunbata, *Urrezko Aizkora* txapelketako saioa jokatu da Zeraingo pilotalekuan. Iluntzeko 7etatik aurrera, zortzi aizkolari ariko dira egurrak mozten; tartean Xabier Dorronsoro, aguazila.

Binakako *Urrezko Aizkora* txapelketako jardunaldia izango da larunbatekoa eta bi maila ezberdinetako aizkolariak arituko dira. Alde batetik, "zilarrezko maila" deritzonean, Xabik eta Irazabal bizkaitarrak Asteasuko Alkizalete anaiei aurre egingo diete 20 enborreko lanean. "Urrezko maila" deritzonean, berriz, Azurmendi eta Ugarteburu goierritarak neurtuko dira Larretxea aita-semeen kontra 30 enborreko lanean.



Ireki dituzte Zeraingo kupeletako txotxak



Ez da sagar urterik onena izan aurtengoa, baina hala ere ez da sagardorik falta Zeraingo kupeletan. Otatzak urtarrilaren 15ean ireki zituen ateak eta Oihartek, berriz, hurrengo egunean. Hemendik aurrera, denboraldi guztian zehar, nahikoa jan eta edateko aukera izango dute hala nahi dutenek Zerain aldean. Bakailo, txuleta eta gazta ezin hobea, sagardo bizigarriz lagunduta jateko Otatzara (943801757) edo Oihartera (943501013) gerturatu.

Gabonetan diru asko eman dugu aurten ere

Eguraldiak guztiz lagundu ez bazuen ere, umore onez gainezka ibili ziren Gabon egunez etxez etxe kantuan eta eskean herriko bi taldeak. Herri gune inguruan ibili ziren eskolako haur irakasle eta gurasoak (argazkian Otatzan) eguerdia bitartean. Guztira 928,40 euro bildu zituzten eskolako beharretarako. Beste taldeak, herri guztian zehar ibili zenak 1692,15 euro jaso zituen poltsan. Erdia Kultur Elkartearentzat izango da eta beste erdia, kateke-sirako zena, Peruko misio batera bildaliko da. Kantuan ibili ziren guztien izenean eskerrik asko zeraindar denoi!



Haurren danborrada San Sebastian egunean



Zeraingo Herri Eskolan jostailu bilketa egin behar dugu jostailurik ez daukaten umeei bidaltzeko. Erabiltzen ez duzun jostailurik badaukazu edo alferrik espazioa betetzen badizu, ekarri gure eskolara. Ezin baduzu ekarri, deitu telefono honetara 943 80 15 35 eta gu joango gara jostailuak jasotzera.

Zeraingo Herri Eskolako ikasleak. (Haizea, Adur, Irenia eta Haitz)

Sahararen aldeko karabanarako bilketa

Saharar herriari laguntzeko euskal karabana aurten ere martxan da. Aurreko urteetan bezala, Zeraingo Udalaren bitartekotzarekin herrian bilketa egingo da. Otsailaren 6a bitartean udaletxean, Mandio dendan eta eskolan kaxa batzuk jarrita daude. Saharar herriari lagundu nahi diotenen kaxa horietara honako produktuak eraman behar dituzte: atun latak, azukrea, arroza, lentejak eta konpresak. Bildutakoa Sahararen aldeko euskal karabanen zuzenean eramango da herrialde hartara.

Galtzen ari diren hitzak

Kurkuita, kurkubita



argazkia: Wikipedia

Ez da giro Zerainen. Aurreko hilean sagardo-proba izan genuen soziedadean, Jabierren eta Nekaneren eskutik. Atzo Otatzak zabaldu ditu ateak, handikiro. Gaur Oihartek ekin dio sagardo-festari, gazte-jendez blai. Izango da okerrago hornituriko herririk, han-hemen, neguko hotzak astintzeko. Sagardo-probara joan aurretik erdi-eginik utzi nahi nuen hurrengo asteko artikuluxka, eta gero han, lagunarte jatorrean, batari eta besteari galdetu, ea hil honetako hitzaren berri ba ote duten. Halaxe egin dut: sagardotegira joan aurrean idatzia dago artikulutxoaren erdia, eta buelta-koan bestea. Erraza izan da gaurko lana. Beti bezala aurrez aukeratua zuen Elenak hurrengo hitza, bere ustez galbidean doana: *kurkuita* du oraingoak izena. Gatozen beraz *kurkuita* horren kontuak arakatzeraz.

Haritzak duen bulto-koxkor moduko omen da *kurkuita*: hala dio Elenak. Hiztegiara jo dut, informazioa zabaltzeko asmoz. *Kurkuita* ez baina *kurkubita* ageri da bertan, sarrera nagusi moduan, beste zenbait aldaerarekin: *kurkuita*, *kurkufita*, *korkobita*, *korkubita*, *korkoita*, *korkota*,... Ez dago alde handirik, egia esan, batetik bestera. Adiera berekoak edo antzekoak omen dira, partez behintzat, beste hauek ere: *kurkubio*, *kurkullu* eta *kurkubina*.

Zer esan nahi du *kurkubita* horrek? Lehenik eta behin, *kalabaza*. Erdaraz honela dakar OEHK: "calabaza, especialmente que sirve de vasija; calabaza trompetera". Badirudi, gauzak horrela ikusita, huts egin duela oraingoan Elenak: haritz konturik ez da hor ageri. Ez du ordea huts egin. Beheraxeago, izan ere, beste adiera hau dator hiztegiari: "agalla de roble". Beste informazio hau eransten du gainera: Gipuzkoako Goierri esaten omen zaio haritzaren kontu horri *kurkubita* (edo *kurkubio*). Ormaiztegi aldean *poxpolin* ere esaten omen zaio. Arriarango Joantxok bete-betea baiezatu dit azken hori: beraiek bietara esaten omen dute.

Erdarazko hiztegiara jo dugu, "agalla de roble" hori zer ote den jakin nahirik. Maria Molinerrek honela definitzen du *agalla*: "excrecencia anormal en forma de bola que se cría en algunas plantas.

Las del roble (...) tienen abundante tanino, por lo que se emplean para curtir, en tintorería, y también en medicina como astringente y hemostático". Beste izenik ere ba omen dute, gaztelaniaz, haritzaren "agalla" horiek: *cacarro*, *cecidia*, *gállara*, *gargal*, *tora*, *zonzorro*.

Elenak dioenez, jostailu gisa erabili ohi zen *kurkubita*, baserri-giroan. Otatzan, esate baterako, *kurkubita*ren xulotik ziria sartzen zuen aitak eta, bi behatzekin ziriari eraginez, ziba moduan erabiltzen zuen maiz. Beste jolas-modu hau gogoratu du Aldasoroko Maiterek: lasto-ziri lodikote bat hartu, ziri lau zati egin punta batean, eta beste puntatik putz egin lau zati horien gainean jarritako *kurkubita*ri, ea norik denbora gehiagoz airean eutsi; hori izaten omen zen jolasa.

Gure *kurkubita* galtzen ari dela nola konprobatu? Elenak egindako aurrelana hor dago, lehenik eta behin: berak egindako saioa dugu, beti bezala, abia-buru. Aurrekoetan ez bezala, bigarren proba modu bat egiteko aukera eroso genuen oraingoan, eta hori ere egin dugu: txotxean hasi aurretik aurreko galdeketa egin diegu sagardotegian zeraingar zaharrei eta gazteei. Bi multzo hartu ditugu horretarako: bate-tik "zaharrak", hirurogei urte ingurukoak (Juanmari Sagastibil, Antonio Gartzia, Luis Aizpeolea eta Xanti Muñoa). Bestetik "gazteak": 25 eta 35 urte arteko zeraingar gehienak bertan zeuden; horietako zazpi-zortzi aukeratu ditugu. Ondorioa oso argia izan da: zaharren artean guzti-guztiekin dakite *kurku(b)ita* zer den. Gazteen artean inortxok ere ez: txoriren bat izango ote den, edo ipuin-kontuarekin lotutako zerbait, esan digute gehien ausartu diren gazteek. Besteek hori ere ez: gazteetan ez du hitzak korritzen. Arrazoi du beraz Elenak, bete-betea: galtzen ari da *kurku(b)ita*.

Zergatik? Betikora gatoz: bizimodu asko aldatu da azken 40 urtean, eta

aldaketa horrek aurrean daramatza mila ohitura, kontzeptu eta erreferente material zein sinboliko. Beste mundu bat da gaurko Zeraingoa: jendea ez da baserriatik bizi (baserrian ere ez, gehienak). Gehien-gehienak ez dira basora joaten lanera, are gutxiago *kurkubita* jasotzera. Kale-giroan hazi eta hezi dira berrogei urtetik beherako zeraingar gehienak: euskarazko eskolara doaz orain guztiak, eta unibertsitateara asko eta asko. Eskolak eta unibertsitateak ezer gutxi diote, ordea, *kurkubita*z. Gizarte postindustrial honen arrastoan sartzen ez den hitza zirkulaziotik kanpora ari da gelditzen. Zertarako behar dugu gizarte berri honetan *kurkubita*rik? Nork egiten du tintoreria-lana, basora joan eta *kurkubita* jasoz? Eta medikuntzarako, nor dabil Zerainen *kurkubita* bila? Beste bizimodu batean sarturik daude gaurko zeraingarrek, eta bizimodu berri horretan *kurkubita*ren behar kolektiborik ez dago. Eta, jakina: behar ez den hitza galdu egiten da hiztun-taldeen jardunetik. Horregatik ari da *kurkubita* galtzen.

Galera hori ez da gauek goizera gertatzen. Pausoz pauso ari da *kurkubita* galtzen: ia oharkabea. Orain dela berrogei bat urte, baserri-giroa nagusi zelarik eta basoa usotara joateko ez baina bizibidea ateratzeko izaten zenean, *kurkubita* hitza erabili egiten zen. Zeraingarren hitz-altxorrean bizirik eta aktibo zegoen. Erabiliaren poderioz, haurrek eta gazteek ikasi egiten zuten ia oharkabea, eta beren hitz-altxorrean integratzen. Horregatik dakite hirurogei urte inguruko zeraingarrek hain ongi, *kurkubita* zer den. Geroztik etorri da aldaketa nagusia: bizimodua aldatu ahala, hitz hori erabiltzeari utzi egin zaio, eta haurrek edo gazteek ez dute geroztik etxean, lagunartean edo baserri-giroko lanean halakorik esaten ikasten. Lehen baino ekologiazaleago gara orain (ekologiaren sentiberago behintzat bai), hitzez eta arrabotsez. Aurrekoen bizibideak berekin zuen izaera naturala alde batera uzten ari gara ordea: naturarekin jarduteko harreman ekologiko hura galduz goaz. Horren lekuko ere bada, besteak beste, *kurkubita*ren galera.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

ABENDUA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		11,5	2,5	15	6	0	2,5
C° altuena		10	16	12	12	15	15
C° baxuena		3	7	7	7	5	7
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	0,5	0	0	0	0	0	1,5
C° altuena	17	15	15	14	14	9	4
C° baxuena	11	7	4	4	2	2,5	2
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	3,5	7,5	2	0	8	0	0
C° altuena	3	1	2	4	5	5	5
C° baxuena	0	-1	-2	-1	-2	-2	-2
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	0	7	10	5	4	5	0
C° altuena	12	12	11	16	10	12	10
C° baxuena	0	0	6	9	5	2	4
	28	29	30	31			
Euria (l/m)	5,5	1,5	11	6	GUZTIRA: 115,5l		
C° altuena	17	17	16	14	ALTUENA: 17°		
C° baxuena	2	4	8	1	BAXUENA: -2°		

Urte euritsua eta amaieran elurra

2009 urtea nahiko bustia izan dela esan daiteke. Egia da iaz baino euri gutxiago egin duela, baina azkeneko hamaika urtean bigarren euritsuena izan da (iazkoaren atzetik). Abenduan bertan 100 litrotik gora egin ditu eta azaroak 370 litro utzi zituen (nahiz guk aurreko alean, akatsez, gutxiago erakutsi). Eta Santo Tomas aurrean lehen elurtea izan genuen, nahiz eta ez zen urtarrilekoaren parekoa izan.



Untsulategin egindako elur papina

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Urtarrila	133	36	231,5	45	283	223,5	121,5	91	139	104,75	239
Otsaila	201	133,5	89,5	170,25	152	145	164,5	89	152,5	30	169
Martxoa	171,5	110	154,75	40,5	69,25	120,25	96	193,25	320	311,5	127,25
Apirila	131,75	159,25	122,5	100	79	132	236,5	74	130	173	166,5
Maiatza	110,75	62	43,5	171	116	82	86,5	31	114	171	80,75
Ekaina	47,75	57,5	35	84,75	55	22,25	15,25	90,75	52	137	51,25
Uztaila	126,25	108	116,5	61,25	15,75	44,5	9	29	36	17	20,25
Abuztua	50,75	71	17,25	126,25	37,5	60,5	87	32,25	120,75	72,2	28
Iraila	89	29	45,5	42	76,5	133,5	68	130	66,5	32,85	135,5
Urria	34	259	56,5	120	207	83	98,5	99	123,5	151	86,25
Azaroa	189	244,5	194,75	178,75	180,5	175,5	312	117,5	49,25	268	370,25
Abendua	242	145,75	37	314,5	211	223	174,25	97,75	93,5	235,75	115,5
GUZTIRA	1526,75	1415,5	1144,25	1454,25	1482,5	1445	1469	1074,5	1397	1704,05	1589,5

Tute eta mus txapelketak otsailean

Urteroko negu garaiko ohiturari jarraiki, Liztormendi elkarteak karta-jokorako bi txapelketa antolatu ditu otsailerako. Hilaren 6an tuteko txapelketa eta 20an musekoa jokatu dira bazkalondoa hasita.

Bestalde, 2009-2010eko Euskal Herriko mus txapelketaren barruan, herriko kanporaketa jokatu zen urtarrilaren 23an sozidadean. 6 bikote lehiatu ziren eta garaile: Iraitz Iparragirre eta Jon Ander Hombre.



Zozketatutako urdaiazpikoaren zenbaki saritua 95 izan zen.

Yoga ikastaroan izena emateko azken aukera

Azken XaguArtean yoga ikastaro batean parte hartu nahi zutenei deia egin zitzaion. Hainbat herritarrek izena eman dute jada. Lehenbailehen martxan hasi ahal izateko, Kultur Elkarteak azken deia egiten die parte hartzeko interesa dutenei eta oraindik izena eman ez dutenei; udaletxean dagoen zerrendan apunta daitezela urtarrilaren 29a baino lehen.